Horrez gain, jende guztiari eta bereziki hezkuntza komunitateari zuzenduriko Baliabide Didaktikoen Zentroa du, hezitzaileentzat interesgarriak izan daitezkeen literatura pedagogikoa eta gida didaktikoak eskaintzen dituena. On line katalogoa kontsultatzeko helbide honetara jo behar da: <http://www.bantaba.ehu.es/lab/bibl/>

Hegoa

Lehendakari Agirre etorbidea, 83 • 48015 Bilbao

☎ 34 946 017 091 • [hegoa@bs.ehu.es](mailto:hegoa@bs.ehu.es)[www.hegoa.ehu.es](http://www.hegoa.ehu.es)

Izenburua

Hizkuntza

Baliabide mota

Hartzaileak

Laburpena



Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

**Kent and the wider world**

Ingelesa

Baliabide zentroa

Hezitzaileak

Kent and the wider world Erresuma Batuan Garapenerako Hezkuntzaren alorrean diharduten 45 zentroetako bat da, eta Development Education Association elkarteko kidea. Bere helburua interdependentsia globalari buruz kontzientziaztea da, eta ekintza bultzatzea mundu bidezkoago eta iraunkorragoa lortzeko. Bere web orrialdeak hiritartasuna, bidezko merkataritza, errefuxiatuak, globalizazioa eta beste gai batzuk lantzeko hezkuntza baliabideak eskaintzen ditu, hainbat euskarritan: bideoak, jolasak, gidak...

Kent and the Wider World

2-3 Bedford Place • Maidstone, Kent, ME16 8JB (United Kingdom)

[kww@csr.org.uk](mailto:kww@csr.org.uk)[www.kww.org.uk](http://www.kww.org.uk)

Izenburua

Hizkuntza

Baliabide mota

Hartzaileak

Laburpena



Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

**RITIMO - Réseau des centres de documentation et d'information pour le développement et la solidarité internationale**

Frantsesa

Baliabide zentroa

GGKE eta Gizarte Mugimenduak

Ritimo Frantziako 40 informazio zentrok osaturiko sarea da, helburu hauek dituena:

- Munduaren eta gaur egungo egoeraren konplexutasuna azaltzea eta horri buruzko gogoeta egitea.
- Ezagutzak, esperientziak eta proposamenak trukitzea.
- Munduko herritar guztiak heztea.
- Praktika solidarioak eta herritarren ekimenak bultzatzea.

Ritimok hainbat gai jorratzen ditu, garrantzitsuenak hauek direlarik:

- Nazioarteko harremanak, batik bat Iparraldearen eta Hegoaldearen artekoak.
- Nazioarteko elkartasuna.

Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

- Zapalkuntza, indarkeria eta gerraren aurkako borroka, pertsonen nahiz herrien eskubideen defentsa.
- Berrikuntza sozialak, garapen iraunkorra lortzeko alternatibak.

Sareak honako hau eskaintzen du:

- Dokumentazioa.
- Datu baseak: zentroetan eta Interneten daude eskuragarri, aldian behin eguneratzen direlarik.
- Animazio tresnak.
- Informazioa eta eztabaidak.

Ritimo

21 ter, rue Voltaire • 75011 Paris (France)

☎ 33 01 44 64 74 14 ☎ 33 01 44 64 74 55 • [contact@ritimo.org](mailto:contact@ritimo.org)

[www.ritimo.org](http://www.ritimo.org)

Izenburua

Hizkuntza

Baliabide mota

Hartzaileak

Laburpena



**Tide~ Teachers in development education**

Ingelesa

Baliabide zentroa

Hezitzaileak

Tide~ irakaslez osaturiko sarea da eta helburu hauek ditu:

- Garapenerako hezkuntzaren praktika indartzea irakasleen trebakuntzaren bidez, ikastetxeak zein erakundeak animatuz dimentsio globala eta garapenaren ikuspuntua beren agendan sar ditzaten.
- Proiektuak eskaintzea, hezkuntza komunitateak curriculumaren zenbait alderditan edo garapenarekin loturiko gai jakinetan oinarritutako prozesu sortzaile batean parte har dezan.
- Aipatu proiektuen ondorioz sortutako ideiak eta estrategiak zabaltzea. Tide~k baliabide zentro baten modura funtzionatzen du, eta bertara hezitzaileak joan daitezke garapenerako hezkuntzako tailer eta mintegietan parte hartzera, edota zentroak eskaintzen dizkien baliabideak kontsultatzen: gida didaktikoak, posterrak, bideoak, bibliografia, katalogoak etab.

Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

Tide~ Centre

G04 Millennium Point, Curzon Street • Birmingham B4 7XG (United Kingdom)

☎ 0121 202 3290 • [info@tidec.org](mailto:info@tidec.org)

[www.tidec.org/](http://www.tidec.org/)

Izenburua

Egilea

Edizioaren lekua

Argitaletxea

Urtea

**Sokaburuak lotzen. Garapenean aldeko hezkuntza Iruñeko eta Nafarroako 12-18 urte bitarteko gazteen artean. Azterlana**

Atando Cabos Iantaldea; Huici, C.; García, I.; Chocarro, J. et al. (koord.)

Iruñea

Nafarroako GGKEen Koordinakundea

2004

Hizkuntza  
Baliabide mota  
Hartzaileak

Laburpena



Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

Gaztelania, euskara  
CD-Roma edo DVDa  
GGKEak eta Gizarte Mugimenduak

Nafarroako GGKEen Koordinakundeko Sokaburuak Lotzen lantaldearen ideia, ikerlan hau planteatzean, hezkuntzaz, proiektuez, helburuez, gazteriarekin elkarrengaitzeko moduez, epe luzerako lanaz eta antzeko arazoez berrausnarketa egitea izan da. Garapenerako hezkuntza eragin sozial sakon eta eraldatzaileaz hornitzea da asmoa.

CDan lantalde desberdinek egindako hiru ikerlan biltzen dira:

- Garapenerako hezkuntza Nafarroan. Taller de Sociología S.Lk egindako azterlana.
- Proiektuen eta materialen azterketa. ABRA kolektiboak egina.
- Nafarroako gazteriari buruzko ikerketen berrazterketa. Sokaburuak Lotzen lantaldearen lana.

Beste alde batetik, argitalpena ere erakusgai jarri du –liburu formatuan ere kaleratu baitzen–, non goian aipatutako ikerketetako ondorioak biltzeaz gain ikerlan aurreko hipotesiak ere aurkezten diren, ondorioekin kontrastean, eta Sokaburuak Lotzen lantaldeak GHren inguruan dituen hausnarketak ere bai, baita jarduera-lerro nagusiak eta egindako proposamen zehatzen aurrerapena ere.

Nafarroako GGKEen Koordinakundea  
Tudela, 4 - 2. ezk. • 31002 Iruñea  
☎ 34 948 204 123 • [congdh@congdnavarra.org](mailto:congdh@congdnavarra.org)

[www.congdnavarra.org](http://www.congdnavarra.org)

Izenburua  
Egilea  
Edizioaren lekua  
Argitaletxea  
Urtea  
Hizkuntza  
Baliabide mota  
Hartzaileak

Laburpena



Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

**Porto Alegre, 2003**

Joubert, M. A.; Belaigues, S.; Popper, A.; Clec'h, Y.  
Bilbao  
Hegoa  
2005  
Gaztelania, euskara, frantsesa  
CD-Roma edo DVDa  
Hezitzaileak

Porto Alegreko Munduko Gizarte Foroa, 2003. Ibilbide politiko desberdineko eta baliabide gutxiago lau gazte frantses Brasilgo hirira doaz, komunikabideek aurkeztutakoak ez beste irudi batzuk hartzeko asmoz. Horren ondorioz, 52 minutuko dokumentala egin dute Irakeko gerra eta eratan ari den munduko hiritar-mugimendua nagusi diren foroari buruz. Lau gazte militantek zenbait erakundetakoak dira: Selma Marokokoa da; Etienne, Frantziakoa; Hale Turkiakoa; eta Ibrahim, Nigeriakoa. Foroko eguneroko bizitasuna, sustatzen dituen trukeak, parte-hartzaileen itxaropenak eta ezustekoak gizarte-foroen gai eta borroka anitzen adierazgarri dira, bai eta globalizazioaren zein aukerako proposamenen azterketak erkatzeko interesaren adierazgarri ere.

Hegoa  
Lehendakari Agirre etorbidea, 83 • 48015 Bilbao  
☎ 34 946 017 091 • [hegoa@bs.ehu.es](mailto:hegoa@bs.ehu.es)

[www.hegoa.ehu.es](http://www.hegoa.ehu.es)

Izenburua  
Hizkuntza  
Baliabide mota  
Hartzaileak

Laburpena



Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

## ASAL

Italiera

GGKE

Hezitzaileak

ASAL (Associazione Studi America Latina) garapenerako gobernuz kanpoko erakundea da. Hegoaldean Latinoamerikako demokratizazio prozesuei laguntzeko ekimenak, elkartasunezko kanpainak eta nazioarteko lankidetzarako programak egiten ditu. Europa mailan, ASALek herritarren Europa eraikitzearen aldeko kanpaina, sare eta koordinakundeetan parte hartzen du. Italian, berriz, garapenerako hezkuntza eta kultura artekotasunerako ekimenak bultzatzen ditu.

ASALek hezitzaileei, irakasleei eta ikastetxei zuzenduriko proiektuak, ikastaroak eta mintegiak antolatzen ditu, eta Giza Eskubideei, Bakeari, Kultura Artekotasunari eta Garapenerako Hezkuntzari buruzko ikasmaterialak egiten ditu.

ASAL

Via Tacito, 10 • 00193 Roma (Italia)

☎ 39 06 32 35 389 • [asal@asalong.org](mailto:asal@asalong.org)

[www.asalong.org](http://www.asalong.org)

Izenburua  
Hizkuntza  
Baliabide mota  
Hartzaileak

Laburpena



Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

## ITECO – Centre de formation pour le développement et la solidarité internationale

Frantsesa

GGKE

Hezitzaileak

ITECO garapenerako hezkuntzako proiektuen akonpainamendu pedagogikoa eta ebaluazioa egiten duen erakundea da. Bere jarduerak bost arlotan banatzen dira:

- Prestakuntza. ITECOk programa finkoak eskaintzen ditu urtero, eta elkarte eta kolektiboek eskatutako beste batzuk ere bai. Prestakuntza antolatua da. Urtero oinarritzko lau prestakuntza ematen ditu: "Hemen edo beste nonbaiten, zer egin?"; garapenerako hezkuntzako animatzaileentzako ziklo bat: "Garapenerako hezte, lankidetzan aritzeko beste modua"; "Gizarte lana kultura arteko ingurunean" izeneko zikloa; azkenik, garapenerako agenteentzako prestakuntza ziklo bat eta garapenerako hezkuntzan erabiltzeko tresna pedagogikoei buruzko bi modulu.
- Jarraipena eta ebaluazioa.
- Garapenerako hezkuntzako ekintzen akonpainamendu metodologikoa.
- Garapenerako eta garapenerako hezkuntzako ekintzen ebaluazioa.
- Argitalpenak. Antipodes aldizkariaren lau zenbakiez gain, ITECOk urtero Outil pédagogique delakoa kaleratzen du, eskuhartze pedagogikoei eta prestakuntza saioei buruzkoa.

ITECO

2, rue Renkin • 1030 Bruxelles (Belgique)

☎ 32 2 243 70 30 ☎ 32 2 245 39 29 • [iteco@iteco.be](mailto:iteco@iteco.be)

[www.iteco.be](http://www.iteco.be)

Izenburua  
Egilea  
Edizioaren lekua  
Argitaletxea  
Urtea  
Iturria  
Hizkuntza  
Baliabide mota  
Hartzaileak

Laburpena



Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

### Asia, kontinente anitza. Himalaiako herrialdeak. Nepal, Tibet, Butan

Llort i Juncadella, I.  
Bilbao  
Hegoa  
2005  
www.hegoa.ehu.es  
Gaztelania, euskara  
Gida didaktikoa  
Bigarren Hezkuntza (12-16 urte)

Gida didaktiko honek oso-oso gutxi ezagutu edo behar den moduan ezagutzen ez dugun kontinenteko eta herrialdeetako errealitatera hurbiltzeko aukera eskaintzen digu. Zenbait gai jorratu arren, honako hauek dira nagusi: turismoaren ondorioak, umeen lana, iheslariak eta budismoa.

Hegoa-k gida didaktikoa itzuli eta gure testuingurura egokitu du. Hasiera batean, Icaria-Concertació N/Sk 1999. urtean argitaratu zuen Bartzelonan, "L'Àsia. Un continent divers. Països de L'Himàlaia, El Tibet, El Bhutan" izenburupean.

Hegoa  
Lehendakari Agirre etorbidea, 83 • 48015 Bilbao  
☎ 34 946 017 091 • hegoa@bs.ehu.es  
www.casaasia.org

Izenburua  
Egilea  
Edizioaren lekua  
Argitaletxea  
Urtea  
ISBN  
Hizkuntza  
Baliabide mota  
Hartzaileak

Laburpena



### Exploring our world. Investigating issues of interdependence and social justice in the 21st century

Cuthbert, C.  
Belfast  
One World Centre  
2001  
0-9525929-1-6  
Ingelesa  
Gida didaktikoa  
Irakasleak

*Exploring Our World* ikaskuntza aktiborako baliabidea da, Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloko ikasleentzat. Gidako edukiak Geografia arloko curriculumekoak dira eta garapenarekin zerikusia duten gaiak ulertzen laguntzeko prestatuta daude. Proposatutako metodologiak ikasleak animatu egiten ditu mundu bidezkoagoa eta garapen iraunkorragoduna nola sustatu hausnartzera.

Irakaslearentzako liburuak, ikasleentzakoak eta koloretan prestatutako transparentzia sorta batek osatzen dute gida. Baliabide horiei esker ikasleek euren bizimodua egituratzen duten indar politiko, sozial eta ekonomikoen klabeak identifikatzeko aukera izango dute eta pobrezia eta gaizki bideratutako garapenen zergatiak aztertu ahal izango dituzte. Hona hemen bereziki landutako zenbait gai:

- Desberdintasuna.
- Garapen iraunkorra.
- Baliabideak.

Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

- Merkataritza.
- Haurrek egindako lana.
- Zorra.
- Laguntza.
- Emakumezkoek egindako lana.
- Babesa / asiloa.

One World Centre for N. Ireland  
 4 lower Crescent • Belfast, BT7 1NR (Ireland)  
 ☎ 028 9024 1879 • ccuthbert@belfastdec.org  
[www.belfastdec.org](http://www.belfastdec.org)

Izenburua

Egilea

Edizioaren lekua

Argialetxea

Urtea

ISBN

Hizkuntza

Baliabide mota

Hartzaileak

Laburpena



### Food & farming – local & global. Planting ideas, growing ideas

Graham, B.; Ballin, B.; Emerson, C.

Birmingham

Teachers in Development Education / Farming and Countryside Education

2004

0-948838-89-2

Ingelesa

Gida didaktikoa

Lehen hezkuntza (6-12 urte)

Janariak eta jaten dugunak gure geure herrialdeko eta munduko beste herrialde batzuetako bizimoduekin eta lekuekin nola lotzen gaituen erakusten duen gida hau West Midlands-eko irakasle-talde batek diseinatu du. Materialean eztabaida horri buruzko ideiak partekatzeaz gain gaia ikasgelan garatzeko zenbait adibide praktikoko erakusten dira. 10-12 urteko ikasleentzat prestatua izan da eta honako gai hauetan zentratutako azterlanen kasuak ere eskaintzen ditu:

- Elikagaiak, landaketa eta elkarmenpekoasuna.
- Evesham bailaran hazten diren marrubiak.
- Eskola lorategia Ganbian.
- Platanoen ekoizpena Windward irletan.

Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

Teachers in Development Education – Tide~ Centre  
 G04 Millenium Point  
 Curzon Street • Birmingham B4 7XG (United Kingdom)  
 ☎ 0121 202 3290 • wmc@tidec.org  
[www.tidec.org](http://www.tidec.org)



Izenburua

Egilea

Argitaletxea

Argitaletxea

Urtea

ISBN

Hizkuntza

Baliabide mota

Hartzaileak

Laburpena



Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

**Giza harremanak, botere harremanak? Material didaktikoa filosofia arlorako**

Urdanoz, J. eta ALBOAN

Bilbao

Mensajero / ALBOAN

2002

84-271-2493-7

Gaztelani, euskara

Gida didaktikoa

Bigarren Hezkuntza (12-16 urte)

Unitate didaktikoaren asmoa da hausnarketa filosofikotik ondorioztatu behar den dimentsio gehienbat praktikoaz ikaslea jabetu dadin lortzea. Tresna kontzeptual ugari eskaintzen dira inguratzen gaituen mundua aztertu eta ulertzeko, eta hainbat jarduera egoki proposatzen dira ikasitakoa kontrastatzeko eta arrazonomendu filosofiko eta praktiko konplexuagoak bideratzeko.

ALBOAN

Funikularraren plaza, 2 • 48007 Bilbao

☎ 34 944 153 592 📠 34 944 161 938 • info@alboan.org

www.alboan.org

Izenburua

Egilea

Edizioaren lekua

Argitaletxea

Urtea

Hizkuntza

Baliabide mota

Hartzaileak

Laburpena



Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

**Maleta Pedagógica. Um mundo de crianças**

OIKOS, Projecto "Um Mundo de Crianças"

Lisboa

Espaço OIKOS

2004

Portugesera

Gida didaktikoa

Irakasleak

Maleta pedagogiko honetan, zenbait material elkarreragile daude, eta Luisa Ducla Soares idazlearen "Meninos de Todas as Cores" ipuinean oinarrituta daude. Maletak zenbait lan-tresna eskaintzen ditu Lehen eta Bigarren Zikloko irakasleentzat eta animatzaile soziokulturalentzat, garapenerako hezkuntza eskoletara eramateko eta curriculum ofizialean zeharkakotasunez txertatzeko asmoz.

OIKOS - Cooperação e Desenvolvimento

Rua de Santiago, 9 • 1100-493 Lisboa (Portugal)

☎ 351 21 8 82 36 30 • oikos.sec@oikos.pt

www.oikos.pt

Izenburua  
Egilea  
Edizioaren lekua  
Argitaletxea  
Urtea  
Iturria  
Hizkuntza  
Baliabide mota  
Hartzaileak

Laburpena



Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

### Merkataritza eta globalizazioa

Trôcaire  
Bilbao  
Hegoa  
2005  
www.hegoa.ehu.es  
Gaztelania, euskara  
Gida didaktikoa  
Bigarren Hezkuntza (12-16 urte)

Gida hau material malgua da, eta erraz egokitzen da curriculumera. Edukia egituratzen duten saio batzuk edo guztiak landuz gero, ikasleek globalizazio ekonomikoaren zenbait ezaugarri bereizgarri ezagutuko dituzte, bai eta globalizazioak gure planetako hegoaldeko eta iparraldeko pertsona ugarien eguneroko bizimoduan eragindako zenbait ondorio ere. Horrela, bada, honako gai hauek jorratzen dira: globalizazioa, gizarte-protestak, Merkataritzaren Munduko Erakundearen zeregina edo nazioz haraindiko enpresen errealitatea.

Hala ere, hori bezain garrantzitsua iruditzen zaigu neska-mutilei aztarnak ematen dizkieten jarduerak iradokitzea, eurentzat oso lagungarriak direlako jarrera aktiboa eta konprometitua hartzeko eta eraldaketarako ekintza txikietan inplikatzeko orduan.

Hegoa-k gida didaktiko hau itzuli eta gure testuingurura egokitu du. Jatorriz, Trôcaire-k 2003. urtean argitaratu zuen Dublinen, "Trade and Globalisation. A resource for Geography" izenburupean.

Hegoa  
Lehendakari Agirre etorbidea, 83 • 48015 Bilbao  
☎ 34 946 017 091 • hegoa@bs.ehu.es

www.trocaire.org/

Izenburua  
Egilea  
Hizkuntza  
Baliabide mota  
Hartzaileak

Laburpena



### "El prisma del sur" bideoteka

Sodepaz  
Gaztelania  
Gida didaktikoa  
Jendea oro har

"El prisma del sur" bideoteka Sodepaz GGKEren proiektua da, eta hegoaldeko herrialdeetako ekoizpen bideografikoak (Amerika Latinokoak, batez ere) eta, iparraldean eginda egon arren, hegoaldeko errealitateak diren moduan erakusten duten ekoizpen biodegrafikoak biltzea du helburu. Hain zuzen ere, errealizazioen aukeraketa eskaintzen du, eta, bertan, hegoaldeko herrien aldarrikapenak, salaketak, adierazpen kulturalak eta irudiak daude ikusgai.

Bideotekak hegoaldeko ikus-entzunezkoen zentroa sortu nahi du, Hispanoamerikako zenbait talderen eta herriren errealitatea inolako bitartekaririk gabe edonorengana eta, batez ere, gazteengana iritsi dadin. Horrela, bada, honako gai hauen inguruko interesa sortuko da: lankidetzak, elkartasunaren sustapena eta errealitate horrenganako sentsibilitate eta ulermen kritiko handiagoa.

Horretarako, sentsibilizazio-programa diseinatu da. Horiek horrela, hegoaldeko material bideografikoak ezagututa eta hedatuta, prestakuntza eta informazioa eskainiko zaio hartza-

Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

ile-unibertso zabalari. Horrez gain, garapenerako hezkuntzako eskola-programa ere diseinatu da, ikus-entzunezkoen erabilera bultzatzeko.

Hona hemen programa horietako materialak: unitate didaktikoa, irakasleak bideoa lan-tresna moduan erabiltzeko ohiturara hurbiltzeko baliabidea izan nahi du, eta ikasgelan bertan eta/edo ikasgelatik kanpo ikasleekin hausnartzeko eta lan egiteko gida izan nahi du; katalogo, hedapenerako materiala izan nahi du, baina lanerako tresna ere bai; triptikoa, "El Prisma del sur" bideoteka zuzenean zabaldu nahi du; web gunea, proiektua Interneten bidez hedatu nahi du. "El prisma del sur" Sodepaz GGKEren web guneko orri nagusiaren bitartez dago eskuragarri: [www.sodepaz.org](http://www.sodepaz.org)

Sodepaz  
Pez 27, 311. bulegoa • 28004 Madrid  
[videoteca@sodepaz.org](mailto:videoteca@sodepaz.org)

[www.sodepaz.org/prismadelsur](http://www.sodepaz.org/prismadelsur)

Izenburua

Egilea

Edizioaren lekua

Argitaletxea

Urtea

ISBN

Hizkuntza

Baliabide mota

Hartzaileak

Laburpena



### Zientzia eta (Erre)eboluzioa

ALBOAN; Fernández de Manzanos, M<sup>a</sup> T.

Bilbao

Mensajero / ALBOAN

2002

84-271-2478-3

Gaztelania, euskara

Gida didaktikoa

Bigarren Hezkuntza (12-16 urte)

Ikasgai-zerrenda ofizialeko edukietan oinarrituta (zientzia eta metodo zientifikoa, biziaren jatorria, teoria ebolutiboak eta "arrazakeria zientifikoa" deitu izan dena), zientziaren neutral-tasunaren arazoa aurkezten zaio ikasleari: zientzia, absolutua da?, aldagaitz mantentzen da faktore ekonomiko, sozial edo kulturalen aurrean?, zertarako balio du zientziak? Dinamika ugari erabili dira: laborategiko esperimenduak, bakterien jatorria eta maitasunaren jatorria ikertzeko (ala maitasuna ez da haiek bezain erreala? Errealagoa al da zientziaren laguntza egiazta daitekeena?); ikerlan konparatiboak: Manuel Patarroyoren kasua, malariaren kontrako txertoaren aurkitzailearena, pertsonen kontrako minen ikerlan eta ekoizpenaren ikerlanarekin konparatuta, edo zientzia ulertzeko bi modu desberdinen adibidea; edo zenbait teoria zientifikoren erabilera historikoa hainbat giza talderen jokaerak baztertzeko xedez (beste kultura batzuetako gizakiak, homosexualak, emakumezkoak, ijitoak...).

Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

ALBOAN

Funikullarraren plaza, 2 • 48007 Bilbao

☎ 34 944 153 592 📠 34 944 161 938 • [info@alboan.org](mailto:info@alboan.org)

[www.alboan.org](http://www.alboan.org)

Izenburua

Egilea

Edizioaren lekua

Argitaletxea

Urtea

ISBN

Iturria

Hizkuntza

Baliabide mota

Hartzaileak

Laburpena



Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

### De exóticos paraísos y miserias diversas. Publicidad y (re)construcción del imaginario colectivo sobre el Sur

Fueyo, A.

Bartzelona

Icaria / ACSUR Las Segovias

2002

84-7426-615-7

"Hacia el Sur" bilduma

Gaztelania

Liburua

GGKE eta Gizarte Mugimenduak

Garai hau ez da batere ona hegoaldearekiko lankidetzari zein elkartasunari begira. "Globalizazioaren" ondorioz, elkartasuna eta lankidetzeta beste merkantzia batzuk dira, eta kontsumorako "balio erantsia" dute. Testuinguru horretan, solidarioa izatea garagardo solidarioa edatea eta tabako solidarioa erretzea baino ez da. Bien bitartean, telemaratoi solidarioa ikusten dugu, eta, dei solidarioaren bidez, hirugarren munduko ume bat babesten dugu.

Liburu honek zorrotzasunez eta ausardiaz aztertzen ditu gizarte-ordezkaritzarako mekanismo erraldoi bezain ahaltsuaren (ber) eraketa, eta, horrez gain, ondorio bat edo beste kalkulata, "hezkuntza-erresistentziarako" zenbait lerro zehazten ditu.

Icaria editorial, S.A.

Ausiàs Marc, 16 - 3º 2º • 08010 Barcelona

☎ 34 933 011 723 📠 34 933 178 242 • icaria@icariaeditorial.com

[www.acsur.org/](http://www.acsur.org/)

Izenburua

Argitaletxea

Urtea

Iturria

Hizkuntza

Baliabide mota

Hartzaileak

Laburpena



Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

### Developing the global dimension in the school curriculum

DfES, DFID, DEA, QCA eta British Council

2005

[www.oxfam.org.uk](http://www.oxfam.org.uk)

Ingelesa

Liburua

Irakasleak

Material honek honako hauek ditu helburu: zuzendaritza-taldeak, irakasleak, tokian tokian hezkuntza-agintariak eta eskolako curriculumak antolatu eta abian jartzen dituzten langileak. Adibide zehatzen bitartez, erakutsi egiten da dimentsio globala eskolako curriculumean hartu behar dela kontuan, eskolako jarduera aberastu dezakeela eta hezitzaileen zein ikasle-en motibazioa areagotu dezakeela.

Development Education Association (DEA)

1st Floor, River House, 143-145 Farringdon Road • London EC1R 3AB (United Kingdom)

☎ 44 (0)20 7812 1282 📠 44 (0)20 7812 1272 • dea@dea.org.uk

[www.dea.org.uk](http://www.dea.org.uk)

Izenburua  
Egilea  
Edizioaren lekua  
Argitaletxea  
Urtea  
Hizkuntza  
Baliabide mota  
Hartzaileak

Laburpena



Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

### Educación para el Desarrollo. Una estrategia de cooperación imprescindible

CONGDEko garapenerako hezkuntza taldea

Madril

CONGDE

2005

Gaztelania

Liburua

GGKEak eta Gizarte Mugimenduak

Argitalpenean CONGDEko GHRako taldeak eta CONCORD Europako plataformako GH taldeak egin eta kontsentsu zabalez izenpetutako zenbait hitzarmen biltzen dira. Espainiako GHaren gaur egungo egoera ulertzeko beharrezko aktoreei eta jarduera-eremuei buruzko diagnosis jartzen da irakurleen eskura. Eta proposamen zehatzak egiten dira GHari dagokionez SECIk eta Hezkuntza Ministerioak garatzen dituzten laguntza-politikak hobetzeko.

Dokumentua sei ataletan egituratuta dago: GHaren ibilbidearen azterketa, GHaren definizio-rako proposamena, inplikaturako aktoreak, GHaren ezarpen-eremuak eta, amaitzeko, gomen-dio orokorren atala eta azken ondorioena.

Dokumentuaren osagarri bi suposamendu praktiko bildu dituzte, eta Europan eta Estatuan GHaren arloan egiten den lana erakusten dira. Bi eranskinetan testu nagusian bildutako zenbait arlo zabalago jorratzen dira.

Argitalpena honako esteka honetan ikus daiteke:

[http://autonomicas.congde.org/documentos/54\\_1.pdf](http://autonomicas.congde.org/documentos/54_1.pdf)

Coordinadora de ONG de Desarrollo

Calle de la Reina 17, 3º • 28004 Madrid

☎ 34 902 454 600 📠 34 915 213 843 • [coordinadora@congde.org](mailto:coordinadora@congde.org)

[www.congde.org](http://www.congde.org)

Izenburua  
Egilea  
Edizioaren lekua  
Argitaletxea  
Urtea  
Hizkuntza  
Baliabide mota  
Hartzaileak

Laburpena



### Educación y desarrollo. Problemas del tercer mundo

Velloso, A.

Madril

UHUNeko Liburu-denda

2004

Gaztelania

Liburua

GGKE eta Gizarte Mugimenduak

Lan honek hezkuntzaren eta garapenaren arteko lotura du aztergai nagusi. Lehenengo eta behin, hirugarren munduko garapenaren historia aurkezten da bere fase nagusietan: Europako hedapena, inperialismoa, kolonialismoa eta globalizazioa, gaur egungo etapa. Ondoren, garapenari ekiten zaio, eta, bertan, lankidetzeta nahiz hezkuntzarekin dituen loturak aztertzen dira. Garapenaren edo garapenik ezaren inguruko adibideak eskaintzen dira: Palestina, bertako historia eta gaur egungo hezkuntza-sistema aztertzen dira; Irak, zigorrek eta gerrak hezkuntza-sisteman duten eraginak aztertzen dira; Sahara, erbesteratutako herria; eta iheslariak, giza eskubideen urraketaren biktimak. Era berean, honako hauek ere eskaintzen dira: arlo horretako ikerketa-proposamena, garapen-bideko herrialdeetan ikertze-ko orientazioak eta bibliografia.

Harremanetarako helbidea

Librería UNED  
Bravo Murillo, 38 • 28015 Madrid  
☎ 34 913 987 560

Esteka interesgarria

[www.uned.es](http://www.uned.es)

Izenburua

Egilea

Edizioaren lekua

Argitaletxea

Urtea

ISBN

Hizkuntza

Baliabide mota

Hartzaileak

Laburpena



**Fame e squilibri internazionali. Introduzione alle problematiche dei rapporti Nord-Sud**

Beretta, W.

Firenze

Editore Bulgarini Firenze / Manitese

2003

88-234-1598-5

Italiera

Liburua

Irakasleak

Liburua, eskolan erabiltzeko egina, bereziki bigarren hezkuntzan eta goragoko mailetan, planetako hainbat guneren ezaugarri diren arazo nagusiei buruz eta munduko iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeen arteko desorekari buruz hausnarketa egin nahi duen herritarrak orokorrean da erabilgarria. Hezkuntza arloan, gidaliburu hau hainbat gaitarako erabil daiteke, esate baterako, testu-liburuek gosearen gaia lantzeko aurkezten duten informazioa integratzeko, edo herrialde aberastu eta herrialde pobretuen arteko erlazioen berezko zenbait mekanismo politiko, ekonomiko eta soziokultural aurkezteko. Gai horiei ez zaie ia inolako aipamenik egiten eskoletako testu-liburuetan, ez da batzuen eta besteen arteko kausa-efektu erlaziorik ezartzen, eta horrek ez digu uzten arazoaren elkarmenpekotasuna ikusten, gudan nola eragiten duen konturatzen edo erantzunaren zailtasunaz ohartzeko.

Testua garapenerako hezkuntzarako eskuliburu txiki gisa proposatzen da, gosearen arazoaren inguruan –ikuspuntu logiko eta historikotik modu egokian landutako sarearen bidez– hainbat kontzeptu aurkeztu eta erlazioztatzen baititu, hala nola kolonialismoa eta neokolonialismoa, baliabideen xahuketa eta garapenaren mugak, kanpo-zorra, haurrek egindako lana, nazioarteko migrazioak, guda eta armamentuen ibilbidea, multinazionalak, nekazaritza, deslokalizazio industrialak, hirigintza, emakumezkoen bazterkeria eta nazioarteko lankidetzak.

Gidaliburuaz gain, irakasleentzako gida ere prestatu da hura aurkezteko, garapenaren hezkuntza curriculumean sartzeko ikuspegi bat erakusteko eta ikasgelan lan egiteko orduan kontuan hartzeko zenbait iradokizun egiteko.

Harremanetarako helbidea

Manitese

Piazza Gambarà 7/9 • 20146 Milano (Italia)

☎ 39 024 075 165 ☎ 39 024 046 890 • [manitese@manitese.it](mailto:manitese@manitese.it)

Esteka interesgarria

[www.manitese.it](http://www.manitese.it)

Izenburua  
Egilea  
Argitaletxea  
Argitaletxea  
Urtea  
Hizkuntza  
Baliabide mota  
Hartzaileak

Laburpena



Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

### Garapenerako Hezkuntzaren Lan Koadernoak

Caballero, I. (koord.)  
Bilbao  
UNESCO Etxea  
2004  
Gaztelania, euskara  
Liburua  
GGKEak eta Gizarte Mugimenduak

Garapenerako hezkuntza, azken urteotako bultzada handia izan arren, bigarren mailan geratzen da ikastetxeetako plangintzan. Askotan, une puntaletan baino ez da lantzen edo hezkuntza horretako jardunbide ugariak inolako lotura gabe eta isolatuta aurkezten dira. Halere, hezkuntza modu berezia da, etengabe eta modu iraunkorrean ekin behar zaiona, eta curriculumeko zeharkako dimentsio den aldetik, hezkuntza arlo eta etapa guztietan eragiten duena.

Hemen aurkeztutako ikerlanean urte eta erdi luzean UNESCO Etxeak eta EAEko GGKEen Koordinakundeko Bizkaiko Garapenerako Sentsibilizazio eta Hezkuntza taldeak egindako lanaren emaitza da ikastetxe, GGKE eta Berritzeguneekin lankidetzan. Ekintzapide horrek EAEko Garapenerako Hezkuntzan inbolukratutako agente ugari esperimintutako premian izan zuen abiapuntua, diagnosi parte-hartzailea egitearen premian hain zuen, arlo honetan jorratzen diren jardueren gaur egungo egoera baloratzeko lagungarri izango litzatekeen diagnosiaren premian. Gero, ikerlan hau guztien artean egoera hobetzeko lagungarri izan litezkeen estrategiak diseinatu ahal izateko oinarri gisa erabiltzea zen asmoa.

UNESCO ETXEA  
Urkixo zumardia 60, esk. nag. • 48011 Bilbao  
☎ 34 944 276 432 📠 34 944 272 548 • info@unescoeh.org  
[www.unescoeh.org/dokumentuak/EducacionDesarrollo.PDF](http://www.unescoeh.org/dokumentuak/EducacionDesarrollo.PDF)

Izenburua  
Egilea  
Edizioaren lekua  
Argitaletxea  
Urtea  
ISBN  
Iturria  
Hizkuntza  
Baliabide mota  
Hartzaileak

Laburpena



Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

### Global citizenship. The handbook for primary teaching

Oxfam  
Londres  
Oxfam/Chris Kington  
2001  
189-98-5747-8  
www.publications.oxfam.org.uk  
Ingelesa  
Liburua  
Irakasleak

Liburu honek "hiritartasun globala" zer den azaltzen du, eta bai eskolan bai hezkuntza ez formalean erabiltzeko moduko jarraibide argiak eskaintzen ditu. Liburuak proposatutako ideien eta eztabaidagaien bitartez, irakurleek hiritartasun globalaren berezko kontzeptua garatu eta hezkuntza-jardunera eraman ahal izango dute erraztasunez.

[publish@oxfam.org.uk](mailto:publish@oxfam.org.uk)  
[www.oxfam.org.uk](http://www.oxfam.org.uk)

Izenburua  
Egilea  
Edizioaren lekua  
Argitaletxea  
Urtea  
ISBN  
Hizkuntza  
Baliabide mota  
Hartzaileak



Laburpena

Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

### Global Perspectives in Education: the contribution of development education

DEA  
Londres  
DEA, Cyfanfyd, IDEAS  
2000  
190-01-0912-3  
Ingelesa  
Liburua  
Hezitzaileak

Liburuak hiritarrok hiritartasun globalean dugun zeregina onesten, gaur egungo gizartea ulertzen eta era globalean jarduten lagundu nahi digu. Liburuan bertan, nabarmendu egiten da ikuspegi globalaren kontzeptua eta garapen iraunkorra hezkuntza-jardueraren bihotzean egon behar direla.

Development Education Association (DEA)  
1st Floor, River House, 143-145 Farringdon Road • London EC1R 3AB (United Kingdom)  
☎ 44 (0)20 7812 1282 📠 44 (0)20 7812 1272 • [dea@dea.org.uk](mailto:dea@dea.org.uk)  
[www.dea.org.uk](http://www.dea.org.uk)

Izenburua  
Egilea  
Edizioaren lekua  
Argitaletxea  
Urtea  
ISBN  
Hizkuntza  
Baliabide mota  
Hartzaileak



Laburpena

Harremanetarako helbidea  
Esteka interesgarria

### Globalización, sociedad y escuela. Cómo hacer frente a los principales problemas actuales desde la psicología social crítica

Ovejero, A.  
Valladolid  
Valladolideko Unibertsitatea; Argitalpenen eta Argitalpen Trukeen Idazkaritza  
2004  
84-8448-315-0  
Gaztelania  
Liburua  
Irakasleak

Gizarte-psikologiak zentzua dauka, gizartearen eta bertako arazoan ulermena hobetzen duen neurrian. Horretarako, Ovejerok globalizazioa ezaugarri duen gaur egungo testuingurua berrikusten du arlo ekonomikoan; neoliberalismoa, arlo ideologikoan; eta postmodernitatea, gizartearen eta kulturaren arloan.

Jakin badaki beste mundu bat sortu daitekeela eta, horretarako, behar den moduko estrategia politikoak zein gizarte-jarduerak garatzeko gai izan behar garela. Egileak eskolan bertan amaitzen du azterketa, eta ikaskuntza kooperatiboa gizarte hobea lortzeko tresna eraginkorra izan daitekeela proposatzen du.

[tasiob@psi.uva.es](mailto:tasiob@psi.uva.es)  
[www.uva.es/psicologia](http://www.uva.es/psicologia)



Izenburua  
Egilea  
Edizioaren lekua  
Argitaletxea  
Urtea  
ISBN  
Hizkuntza  
Baliabide mota  
Hartzaileak

Laburpena



Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

### Guidelines on producing resources for global youth work

Adams, Paul  
Londres  
DEA  
2000  
190-01-090-8-5  
Ingelesa  
Liburua  
Hezitzaileak

Gida gazteekin lan egiten dutenentzat da, beti ere talde horrentzako hezkuntza-baliabideak antolatu, egin eta argitaratu nahi badituzte. Eztabaida eta era guztietako euskarrietan sortutako material eraginkorren ekoizpena suspertzea du helburu. Horra hor mahai-jokoak, bideoak, musika, informazio-liburuxkak, web orrialdeak...

Development Education Association (DEA)  
1st Floor, River House, 143-145 Farringdon Road • London EC1R 3AB (United Kingdom)  
☎ 44 (0)20 7812 1282 📧 44 (0)20 7812 1272 • [devedassoc@gn.apc.org](mailto:devedassoc@gn.apc.org)  
[www.dea.org.uk](http://www.dea.org.uk)

Izenburua  
Egilea  
Edizioaren lekua  
Argitaletxea  
Urtea  
ISBN  
Hizkuntza  
Baliabide mota  
Hartzaileak

Laburpena



Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

### Hacia un curriculum para una ciudadanía global

Polo, F.  
Bartzelona  
Intermón Oxfam  
2004  
84-8452-330-6  
Gaztelania  
Liburua  
Irakasleak

Liburua Intermon Oxfamek balioen hezkuntzaren arloan egindako ekarpen interesgarria da. Gaur egungo munduaren azterketatik abiatuz, globalizazioak erabat menperatuta daukan munduaren azterketatik hain zuzen, eta helburu nagusia haren ezaugarri negatiboak eraldatzea izanik, bosgarren belaunaldiko garapenerako hezkuntza bultzatzearen beharrezko funtsezko bihurtu da. Horretarako, hiritartasun globalaren kontzeptua, hezkuntza kritikoa eta demokratikoa lekutuko den marko gisa, definitu eta justifikatzen da. Hezkuntzaren erreforma posiblea eztabaidagai dugun garai honetan Ferrán Poloren txostena hausnarketarako dokumentu interesgarria izan liteke.

[info@intermonOxfam.org](mailto:info@intermonOxfam.org)  
[www.intermonoxfam.org](http://www.intermonoxfam.org)

Izenburua

Egilea

Edizioaren lekua

Argitaletxea

Urtea

ISBN

Hizkuntza

Baliabide mota

Hartzaileak

Laburpena



Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

### La educación para el desarrollo en el ámbito formal, espacio común de la cooperación y la educación. Propuestas para una estrategia de acción integrada

Baselga, P.; Ferrero, G.; Boni, A. (koord.)

Valentzia

Editorial Universidad Politécnica de Valencia

2004

84-9705-664-7

Gaztelania

Liburua

GGKEak eta Gizarte Mugimenduak

Sektore formalean bideratutako garapenerako hezkuntzari (GH) buruzko txostena, zeinaren bidez, batetik, hezkuntza-eredu horren garrantzia justifikatu nahi den eta, bestetik, Espainiako estatuko hezkuntza-sisteman garapenerako hezkuntza epe luzean modu bateratu eta integratuan ezartzeko erabiliko den estrategiarako oinarriak zehazteko proposamenak planteatu nahi diren.

Lehenengo atalean Espainiako estatuan GHaren jatorria eta ibilbidea aztertzen dira. Bigarrenean, kontzeptua zehaztu ezezik definizio horretan bil daitezkeen jardueren ezaugarriak jasotzen ditu. Hirugarren atalean gaur egungo hezkuntza-maparen egituraketa aztertzen da. Laugarren atalean GHrako prozesuetan inbolukratutako aktoreak deskribatu eta hezkuntza-sisteman GH horren ezarpenerako estrategia diseinatzeko zenbait proposamen biltzen dira. Amaitzeko, bosgarren atalean, erreferentzia bibliografikoak eskaintzeaz gain arlo formaleko garapenerako hezkuntzari buruzko zenbait argitalpen nabarmentzen dira.

Centro de Cooperación al Desarrollo

Universidad Politécnica de Valencia

Camino de Vera, s/n • 46022 Valencia

☎ 34 963 877 898 📠 34 963 877 899 • ccd@upvnet.upv.es

[www.upv.es/ccd/](http://www.upv.es/ccd/)

Izenburua

Egilea

Edizioaren lekua

Argitaletxea

Urtea

ISBN

Iturria

Hizkuntza

Baliabide mota

Hartzaileak

Laburpena



### La Educación para el Desarrollo en un mundo globalizado

Naya, L. M. (koord.)

Donostia

Erein

2003

84-9746-138-X

Espacio Universitario, 13

Gaztelania

Liburua

GGKE eta Gizarte Mugimenduak

Azken hamarkadan, "globalizazioa" terminoa hizkuntza arruntean zein jarduera politiko eta ekonomiko guztietan ezarri da, herrialdeen arteko ageriko harremanen adierazgarri. Testuinguru horretan, garapenerako hezkuntzak mundu berdintasunezkoagoa eta bidezkoagoa lortu nahi du, eta, horretarako, herrialde aberatsetako zein herrialde txiroetako gizarte-mugimenduak, erakundeak eta eragile politikoak inplikatu nahi ditu.

Hona hemen zenbait helburu: kalitateko hezkuntza-politikak bultzatzea eta pertsonak zein taldeak inplikatzeko giza garapen bidezko eta solidarioaren aldeko gizarte-eraldaketarako

Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

ekintzetan. Liburu hau 2002ko abenduan Euskal Herriko Unibertsitatean egindako "Elkarrizketa pedagogikoen" emaitza da.

Erein Argitaletxea  
Tolosa Etorbidea, 107 • 20018 Donostia-(Espainia)  
☎ 34 943 218 300  
[www.erein.com](http://www.erein.com)

Izenburua

Egilea

Edizioaren lekua

Argitaletxea

Urtea

ISBN

Iturria

Hizkuntza

Baliabide mota

Hartzaileak

Laburpena



Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

**Lecciones de Paulo Freire. Cruzando fronteras, experiencias que se completan**

Gadotti, M.; Gómez, M.; Frerie, L.  
Buenos Aires  
CLACSO  
2003  
950-9231-83-5  
Campus Virtual bilduma  
Gaztelania  
Liburua  
Hezitzaileak

Liburu hau hezkuntzako eta gizarte-ikerketako profesionalek eta intelektualek batera egindako lanaren emaitza da. Testu bitxia da benetan, Internet bidez egindako topaketak eta eztabaidak jasotzen dituelako. Zenbait herrialdetako pertsonak sare hori ehundu zuten, esperientziak sortu zituzten eta bizipenez zein loturez betetako alderdi anitzeko bilbea sistematizatu zuten. Paulo Freirek zioenez, inork ez dio inori irakasten: ikastaroko parte-hartzaileek batera ikasi zuten, euren jardueretako mundu digital eta "birtualaren" eraginpean. (On line dago eskuragarri).

Amerika Latinoko Gizarte Zientzien Kontseilua  
[erol@clacso.edu.ar](mailto:erol@clacso.edu.ar)  
[www.clacso.org/](http://www.clacso.org/)

Izenburua

Egilea

Edizioaren lekua

Argitaletxea

Urtea

ISBN

Hizkuntza

Baliabide mota

Hartzaileak

Laburpena



Laburpena

**Measuring our effectiveness, the improving practice series**

DEA; Alexander, T.; Kirby, B.; McCollum, A.; McKenzie, A.  
Londres  
DEA  
2000  
190-01-090-7  
Ingelesa  
Liburua  
GGKE eta Gizarte Mugimenduak

Liburu honek garapenerako hezkuntza ebaluatzeko gaur egungo jardueraren ikuspegia eskaintzen digu. 8 kasuren azterketaren bidez, garapenerako hezkuntzako argitalpenen, baliabideen, proiektuen zein erakundeen eta erabilitako metodoen eraginkortasuna neurtzen da. Kasuen azterketan oinarrituta, kontuan hartu beharreko giltzarriak ateratzen dira; zer, zergatik eta nola ebaluatzen dugun jartzen da auzitan; eta zailtasunak, ikasitako ikasgaiak eta eman beharreko hurrengo urratsak azaltzen dira.

**Harremanetarako helbidea**

Development Education Association (DEA)  
1st Floor, River House, 143-145 Farringdon Road • London EC1R 3AB (United Kingdom)  
☎ 44 (0)20 7812 1282 📠 44 (0)20 7812 1272 • dea@dea.org.uk

**Esteka interesgarria**

[www.dea.org.uk](http://www.dea.org.uk)

**Izenburua**

Egilea

Edizioaren lekua

Argitaletxea

Urtea

Hizkuntza

Baliabide mota

Hartzaileak



Laburpena

**Sistematizazioa, gure jardueretarako begirada berria.**

**Gizartearen eraldaketarako esperientziak sistematizatzeko gida**

ALBOAN; Hegoa; Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua  
Bilbao

ALBOAN / Hegoa / Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua  
2003

Gaztelania, euskara

Liburua

GGKE eta Gizarte Mugimenduak

Argitalpen hau "Giza garapena / Esperientziak partekatzen" proiektuaren barruan sortu da, eta honako hauen baterako ekimena izan da: ALBOAN, Hegoa eta Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua (Deustuko Unibertsitatea). "Erakundeontzat interesgarria izan da hegoaldean zein iparraldean giza garapenaren alde lan egiten duten eragileen jarduerak batera aztertzeak aukera edukitzea. Jarduera horien azterketan, zenbait giltzarri aurkitu ditzakegu, jarduerok hobetzeko eta garapenerako lankidetzan zein gure inguruneko nahiz beste herri batzuetako gizartearen eraldaketarako edozein lanetan bide berriak proposatzeko. Ikuspegi horretatik, esperientzien sistematizazioa eta ekarpen teorikoak nahiz metodologikoak oso erabilgarriak izan daitezke, gizartearen eraldaketarako jardueretara hurbiltzeko, ondorioak ateratzeko eta etorkizuneko lana behar den moduan bideratzeko. Labur-labur esanda, sistematizazioak gure laneko oinarritzko premiari erantzun nahi dio: jardunetik ikasi, hobetu ahal izateko".

**Harremanetarako helbidea**

ALBOAN

Funikularraren plaza, 2 • 48007 Bilbao

☎ 34 944 153 592 📠 34 944 161 938 • info@alboan.org

**Esteka interesgarria**

[www.alboan.org/sistematizacion](http://www.alboan.org/sistematizacion)

Izenburua

Hizkuntza

Baliabide mota

Hartzaileak

Laburpena



**Annoncer la couleur**

Frantsesa, nederlandera

Web orrialdea

Irakasleak

1997. urtetik, Annoncer la Couleur erakundeak 12 urtetik gorako gaztetxoak sentsibilizatu nahi ditu iparralde-hegoalde harremani buruzko gaien inguruan, irakasleekin, hezitzaileekin egindako lanaren bidez. Web orrialdearen bitartez, erakundeak egindako material pedagogikoak eskuratu daitezke, bai eta beste erakunde batzuek eragileen zein prestakuntza-zentroen esku jartzen dituzten baliabideak ere.

**Harremanetarako helbidea**

[annoncerlacouleur@btctb.org](mailto:annoncerlacouleur@btctb.org)

**Esteka interesgarria**

[www.annoncerlacouleur.be/](http://www.annoncerlacouleur.be/)

Izenburua

Egilea

Hizkuntza

Baliabide mota

Hartzaileak

Laburpena



Harremanetarako helbidea

Esteka interesgarria

### Bantaba

**Giza garapenerako, hezkuntza globalerako eta herritarren partaidetzarako baliabideak**

Hegoa

Gaztelania, euskara

Web orrialdea

GGKE eta Gizarte Mugimenduak

Bantabak hainbat baliabide eskaintzen dizkie giza garapena, hezkuntza globala eta herritarren partaidetzaren arloan dihardutenei edo gai horietan interesa dutenei. Bere web orrialdea bost ataletan dago banaturik, eta dokumentazioa, estekak, proposamen didaktikoak, erreferentzia bibliografikoak eta tresnak eskaintzen ditu. Guztiak oso erabilgarriak dira giza garapena, elkartasuna eta berdintasunaren ikuspuntutik gizarte eraldaketaren alde lan egiten duten pertsona, gizarte mugimendu, GGKE, ikerketa zentro eta abarrentzat.

- Gaikako behatokia  
Partaidetza eta Demokrazia, Berdintasuna, Tokiko Garapena, Generoa eta Garapena, Kultura Artekotasuna, Gatazkak...
- Erraz hezten  
Proposamen didaktikoak, argibide metodologikoak eta beharrezko baliabide guztiak barne: eskemak, aurkezpenak, testuak, dinamikak, bibliografiak...
- Hezkuntza laborategia  
Baliabide didaktikoen erreferentziak; beste web orrialde batzuetarako estekak; Hegoak Gasteizen duen Hezkuntza Baliabideen Zentroko (CEREC) Katalogorako on line sarbidea; ikastetxeek beren esperientziak trukatzeko gun bat.
- Gizarte mugimendua(k)  
GGKE eta lankidetzaren solidarioa, gizarte mugimenduak eta ekintza globala; gizarte komunikazioa; teknologia berrien erabilera alternatiboak eta jardueren agenda.
- Tokiko lankidetzaren  
Dokumentazioa, estekak eta zenbait baliabide.

Hegoa

Lehendakari Agirre etorbidea, 83 • 48015 Bilbao

☎ 34 946 017 091 • hegoa@bs.ehu.es

www.bantaba.ehu.es

Izenburua

Egilea

Hizkuntza

Baliabide mota

Hartzaileak

Laburpena



### CME – Campaña Mundial por la Educación

ALBOAN, Ayuda en Acción, Entreculturas, Intermón Oxfam

Gaztelania

Web orrialdea

GGKE eta Gizarte Mugimenduak

Kanpaina hau munduko biztanle guztiak kalitatezko hezkuntza bat izan dezaketelako uste osoak bultzatzen du, eta hezkuntzarik ez jasoteak pertsonengan nahiz herrialdeengan duen eraginarekiko kezak.

CMEren ustez, egungo ekonomia gero eta gehiago ezagutzen oinarritzen da, eta beraz, hezkuntzarako eskubiderik ez izateak pobrezia, desberdintasuna eta gabezia sorrarazten du.



Harremanetarako helbidea  
Esteka interesgarria

Hezkuntzaren Aldeko Munduko Kanpainak bere helburua objektibotasunez, gardentasunez eta era arduratsuan lortuko duela hitzeman du, eta bere plan zein ekintza guztietan arau eta prozesu demokratikoak jarraituko dituela.

Kanpainaren iritziz, hezkuntza da:

- Giza eskubide unibertsala.
- Pobrezia gutxitzeko eta giza garapen iraunkorra lortzeko gakoa.
- Estaturen erantzukizun nagusietako bat.
- Lor daitekeen helburu bat, gobernuak borondate politikoa erakusten badute eta baliabideak jartzen badituzte.

Web orrialdeak kanpainako dokumentuei eta munduko hainbat tokitan egindako ekintzei buruzko informazioa eskaintzen du, baliabideez eta ekintza horiek in loturiko albisteez gain.

info@cme-espana.org  
www.cme-espana.org/

Izenburua  
Hizkuntza  
Baliabide mota  
Hartzaileak  
Laburpena



Harremanetarako helbidea  
Esteka interesgarria

### CJE – Consejo de la Juventud España

Gaztelania  
Web orrialdea  
Gazteak

Espainiako Gazteria Kontseilua (CJE) 1983an sortu zen legez, eta Autonomia Erkidegoetako Gazteriaren Kontseiluek eta Estatuko gazteen erakundeek osatzen dute. Bere helburua da Espainiako garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturean gazteek duten partaidetza indartzea, ingurune global baten barruan. Bere web orrialdeak Espainiako Gazteria Kontseiluaren jardura eta argitalpenei buruzko informazio eguneratua eskaintzen du, eta baita beste zerbitzu batzuk ere, esaterako eztabaida foroak, informazio interesgarria, prentsa-sako laburpenak etab.

info@cje.org  
www.cje.org

Izenburua  
Hizkuntza  
Baliabide mota  
Hartzaileak  
Laburpena



Harremanetarako helbidea  
Esteka interesgarria

### Control Ciudadano

Gaztelania, ingelesa  
Web orrialdea  
GGKE eta Gizarte Mugimenduak

Control Ciudadano herritarren erakundeek osaturiko nazioarteko sarea da. Pobrezia eta bere zergatiak errotik kentzea du helburu, aberastasunaren bidezko banaketa eta giza eskubideak bermatzeko. Justizia sozial eta ekonomikoarekin konprometitu dago, eta baita genero justiziarekin ere. Control Ciudadanok kontuak eskatzen dizkie gobernuari, NBEaren sistemari eta nazioarteko erakundeari, pobrezia errotik kentzeko egitasmo nazional, erregional eta internazionalen betetze mailari buruz.

